

Frantziskotarrak-ofm Euskal Herrian

PAULO AGIRREBALTZATEGI

Frantziskotarrak-OFM Ordenari buruzkoa da soilik hemengo “historia” laburra, Euskal Herrian ‘Arantzazuko Fraideak’ izenez ere ezaguna. XIII-XV. mendeetan, ostera, Ordena bakarra izan zen Asisko San Frantziskoren Anaia txikiena, baita Euskal Herrian ere, XVI.ean hiru familiotan bereizi arte: Komentualak, Obserbanteak eta Kaputxinoak. Obserbanteen ildokoak dira gaurko Frantziskotarrak-OFM.

1. Historia laburra

Santiagoko erromesen bideari jarraituz edo, Ordenaren hasierako urteetan agertu ziren Fraide txikarrak Euskal Herrian –San Frantzisko bera ere bai, batzuen ustez–. 1230.eko urteetakoak dira –S. Frantzisko 1226an hil zen– bertako lehen fraide-komentuak: Iruñea, Gasteiz, Baiona. 1282an baziren zazpi komentu frantziskotar EHan (Nafarroan, Araban eta Lapurdin). Bizkaiko lehen komentua Bermeokoa izan zen (1357) eta Gipuzkoan Arantzazukoa izan zen aurrena (1501), Debako Sasiolakoarekin bateratsukoa (1503).

XVI. mendearen lehen partean Burgosko Frantziskotar Probintziaren barrutikoak ziren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako komentuak; Nafarroa, berriz, Aragoa eta gero (1566tik aurrera) Burgos Frantziskotar Probintziakoa izan zen. 1551n lehen hiru herrialdeek, Santander-Kantabriarekin batera, Kantabria Probintzia frantziskotarra eratu zuten, Burgoskotik bereizia. Horrela iraun zuen XIX. mendeko esklastrazioa arte. 1878an berreraiki zuten Kantabria Frantziskotar Probintzia, aurrena Spainian. Hego EHko lau herrialdeez gain –Nafarroa ere bai–, Santander, Errioxa, Valladolid, Burgos, Soria eta Guadalajara probintziak bildu izan ditu ordutik hona Kantabria Probintziak. 2000. urteaz geroztik *Arantzazuko Frantziskotar Probintzia* du izena –laburtuz, AFP deitzen dugu hemen–. Donapaleuko komentutik hasi zen,

bestalde, Ordenaren berreraikitzea Frantzian (1851); orain dela gutxi arte Akitania Frantziskotar Probintziakoa izan da Ipar Euskal Herria.

Esklaustrazioaren aurreko urteetan 750 inguru ziren Probintziako komentuetan bizi ziren fraideak, gehienak EHko hamazazpi komentuetan –kanpo-misioetan bizi zirenak kontuan izan gabe–. Errestaurazioaren ondoren 1960.eko urteetan izan zuen Probintziak fraide-kopururik handiena, Probintziako lurraldean ez ezik hainbat “misio-herrialdetan” eta kanpoko etxetan banatuta. 1969an 712 ziren; horietatik sortzez EHkoak 609; 1998an 389 ziren (313 EHkoak, sortzez). Gaur egun oso murriztua dago AFPko fraideen kopurua.

Kanpo-misioetako tradizio handi-luzea izan du AFPak. Esklaustrazio aurretik Iberoameriketako herrialdeetan batez ere; eta XX. mendean Ameriketara (Kuba, Bolivia, Paraguai, Uruguai, Argentina, Peru, Puerto Rico, Dominikar Errepublika) eta Asian ere bai (Txina, Japonia, Korea).

2. Ordenaren karisma

San Frantzisko Asiskoaren Erregelaren lehen lerroan dago adierazita fraide jarraitzaileen karisma: “Anaia txikien Erregela eta bizimodua hauxe da: Jesu Kristo gure Jaunaren Ebanjelio santua betetzea, obedienez, berenik gabe eta kastitatean biziz”. Horren arabera, honetara dio Ordenaren Konstituzioetako lehen artikulua: “Anaiek, San Frantziskoren jarraitzaile direnez, Ebanjelioko bizimodua bizi behar dute erro-errotik, otoitz eta deboziozko espirituan eta anai elkartasunean; penitentiaren eta txiki izatearen testigantza eman behar dute; eta gizon-emakume guztien-ganako maitasunean, mundu osoari eraman behar diote Ebanjelioaren berri ona; eta, beren egintzaz, adiskidetzea, bakea eta justizia predikatu behar dute”.

Anaiarteko biziera pobrea eta jendeengandik hurbilekoa bizitzea eta gizartean Ebanjelioa zabaltzea dute, beraz, beren karisma eta misioaren funtsa; eta inolako jardunbide jakinek ez du definitzen beraien misio berezia. Praktikan eta historikoki komentu-elizako eta herriz herriko predikazioa eta aitortza-lana (eta herri-misioak) izan dituzte jarduerarik handiena Euskal Herrian bertan, eta ebanjelizazioa “misio-lurraldeetan”; irakaskuntzan eta bestelako pastoralta- eta kultur eginkizunetan edo sozialetan ere jardun izan dute fraideek, norberaren ‘karismaren’ arabera. Azken aldira (Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren bereziki) eta parrokiak zerbitzatzeko apaizak urrituz joatearekin batera, EHko frantziskotar askok eta askok parroki lanetan dihardute; komentu gehienetako elizak parrokia edo kultu-zentro parrokiak bihurtuta daude gainera.

3. Etorkizuna

2012an 242 fraide zituen AFPk; horietatik 50 pasatxo Ameriketan eta Asian; Euskal Herrian, berriz, 140 inguru. Fraideen adina, batz bestekoa, 73 urtekoa zen. Gazteen arteko bokazio-pastoralta indarberritu nahi izan du Probintziak, gaurko komunikabide berriak eta sare sozialak ere baliatuz, etorkizunari itxaropenez irekita, nahiz eta luzaroan eta oraingoz oso bakanak izan anaiarteko fraide-bizitzara datozkigunak.

Espainiko Frantziskotar Probintzia gehienak erakunde bakarra osatzeko bidean dira, eta 2015ean burutuko dute prozesua. AFP prozesu horretatik kanpo geratu da, bere bidea egitekotan, guztien arteko zenbait proiektu bateratutan parte hartzen jarraituz. Datozen urteetan etxeen eta bizi-presentzien murrizketa egitera behartuta dago; 2012an 16 etxe –komunitate– zituen EHko Hegoaldeko lau herrialdeotan; horietako bi itxita daude dagoeneko; eta beste lau bat datozen hurbileko urteotan ixteko asmotan.

Uste izatekoa da, urte gutxiren barruan “Arantzazuko fraideen” bizi-presentziak oso bakanak eta xumeak izango direla Euskal Herrian. Dena dela, ahal duen neurrian, eta bereziki adi jende pobre eta baztertuenganako elkartasunari eta izadi osoaren zaintzari, misio-eremu eta bizi-aukera ezberdinetara irekita jarraitu nahi du, Arantzazuko santutegi-arduraz eta bertako proiektuez gain: Jendarte marjinauetako presentzia eta ekintza sozialak, parroki pastoralta –hiri- nahiz landa-herrietakoa–, nazioarteko garapen-elkartasuneko ekinbideak, herri kulturaren sustapena, etab.

4. Euskal kulturagintzan nabarmenduriko fraideak

Kapitulu honen hasieran AFPko bi kargudun garrantzizko dira aipatzekoak, euskal kulturaren sustatzaile eraginkor izan zirelako, fraideen artean, besteak beste: Jose Epelde, “Euskal lehen pizkundearen” hasieran, Arantzazuko nagusi bezala (1878-1886), eta Pablo Lete, “Euskal pizkunde berriaren” lehen urteetan, AFPko ministro probintzial bezala (1949-1952).

Bost sail bereizi nahi ditugu alor honetan: 1. Euskal literatura eta idazletza, 2. Euskalaritza eta lexikografia, 3. Euskal musika eta kantua, 4. Euskarazko sermolaritza, 5. Ferri-kulturaren bilketa eta azterketa. Izenen batzuk sail batean baino gehiagotan agertuko dira; batzuek fraide-bizitza utzita gero ere euskal kulturagintzan dihardute gogoz.

a) *Euskal idazleak*: Euskal literaturaren historia-liburu klasiko ia denek honako fraide frantziskotarron izenak nabarmendu izan dituzte: Esteve Materre (EH Iparraldean), Juan Antonio Ubillos (1707-1789), Pedro Antonio Añibarro (1749-1830), Pedro Astarloa (1751-1821), Jose Kruz Etxeberria (1773-1853), Juan Mateo Zabala (1777-1840), Jose Antonio Uriarte (1812-1869). XX. mendeko euskal literaturan nabarmendutako beste izen batzuk: Antonio Arruti (poesia), Salvatore Mitxelena (poesia eta saiakera), Julian Alustiza (poesia eta prosa), Bitoriano Gandiaga (poesia), Manex Erdozaintzi (poesia), Felix Bilbao (ipuina), *Euskal Idazleak gaur* liburuan (1975) AFPko hiru frantziskotar ageri dira garaiko hamar euskal idazle lehenetsien artean: Luis Villasante –Euskaltzaindiko lehendakaria urte askotan–, Joxe Azurmendi eta B. Gandiaga. Euskara idatzizko kazetaritzan AFPk eta bertako hainbat fraidek egindako ekarpena oso garrantzizkoa izan da, batez ere *Arantzazu*, *Anaitasuna* eta *Goiz-Argi* aldizkarietan: Imanol Berriatua, Karmelo Iturria, Eujenio Agirretxe eta Anastasio Esnaola (poeta ere bai) izenda daitezke, bestelako sailetan ere ageri diren beste hainbaten lekuko moduan; aipamen berezia merezi dute gainera, *Arantzazu* egutegiaren sortzaile eta zuzendari izandako Jose Garatek eta azken urte askotan zuzendari den Jose L. Zurutuza idazleak (*Arantzazu* aldizkaria). Arantzazun sorturiko *Jakin* aldizkariaren inguruan euskal idazle oparoenetako batzuk seinalatu behar dira, gero bakoitzak landu duen alor nagusi eta guzti –hauetako batzuk Unibertsitateko euskarazko irakaskuntzan jardunak–: Pello Zabaleta (poesia), Joxe Azurmendi (filosofia), Joseba Intxausti (euskal historia), Joan Mari Torrealdai (euskal kulturaren soziologia), Paulo Agirrebaltzategi (kultur antropologia eta teologia), Pello Huizi (psikologia)... Azkenik, eta hainbat fraide euskal itzultzailearen artean hiru izen azpimarratuko ditugu: Ramon Irizar, Jose M. Regillaga eta J. L. Zurutuza –azken hau AFPko euskal itzultzaileen batzordearen koordinatzailea–.

b) *Euskalaritza eta lexikogintza*: XIX. mendeko J. A. Uriarte eta Zarauzko Misiolariez gain, XX.eneko L. Villasante, J. Intxausti eta Fernando Mendizabalaren izenak azpimarratzekoak dira. UZEI terminologi zentroa *Jakin* taldeak eraiki zuen; eta bertako lexikogintzan Jose A. Aduriz frantziskotarra bereziki izendatzekoa da.

c) *Musika eta kanta-konposatzaileak*: Arantzazu santutegiaren inguruan batez ere asko landu dute frantziskotarrek musika: korua, organoa, konposizioa. Bertako musika- artxibo “berrian” bildutako kanten katalogoan 2.000tik gora euskarazkoak dira, horietako hainbat bertako fraideek konposatu edo harmonizatuak. Horrelakoetan XX. mendeko izen nagusiren batzuk aipatuko ditugu: Jose Arrue, Joan Jose Garmendia, Jose M. Arregi, Leonardo Zelaia, Jose Iturria; eta berriagoak eliz-

kanta eta bestelakoen idazle edota konposatzaile moduan: B. Gandiaga, Pello Zabala, Iñaki Beristain. Konposatzaile modernoetan entzute eta oihartzun apartekoa du Felix Ibarrondok, gaztetan Arantzazuko hainbat kanten harmonizazioan ere aritua.

d) *Herri-kultura eta euskararen bilketa eta azterketa*: XX. mendean batez ere AFPko hainbat fraide saiatu zen euskal “folkloreko” –kantik, literatura, sinesteak, ohiturak– eta euskal hiztegi materiala biltzen eta lantzen, Arantzazuko artxiboan jasota dagoena eta gehienbat argitaratua. Horrelako biltzaile eta aztertzaileen artean bereziki gogoratzekoak ditugu: Jose A. Lizarralde (historialaria), Ignazio Omaetxebarria (historialaria eta polifazetikoa), Kandido Izagirre (lexikografoa) eta gorago ere aipatuta dauden J. Arrue, S. Mitxelena, J. Alustiza eta B. Gandiaga.

e) *Euskal sermolaritza*: EHko Frantsizkotarrak(OFM) herrietako predikazioan eta herri-misioetan oso ezagunak izan dira, mendeetan barna. Orainsu argitaratua da Arantzazun eta Zarautzen jasota dagoen XVIII-XX mendeetako ia 6.000 sermoi idatzien bilduma handiaren katalogoa, azpiko bibliografian ikus daitekeena: horietatik 4.500 inguru euskarazkoak dira. Zarauzko Kolegioko misiolariak (XVIII-XIX m.) goraipatu izan dituzte, euskal sermolari eta idazle moduan, euskararen eta euskal literaturaren historialari guztiek: Joan Mateo Zabala, Jose C. Etxeberria, eta beste. Haiekin batera euskarazko eliz oratorian bereziki entzutetsuenak izendatzearen, hona batzuk: Frantzisko Palacios, Pedro A. Añibarro, Kristobal Linaza, Joan J. Salazar, Elias Arregi, Jose Olazarán eta Jose A. Uriarte XVIII-XIX mendeetan; Daniel Baertel, Deogracias Igartua, Manuel Umerez, Jose A. Ugarte, Eulalio Amunategi, Demetrio Garmendia, Sabin Zubieta, J. Alustiza eta E. Agirretxe XIX-XX mendeetan.